

VIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

VIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, Jose Antonio Pérez, Andoaingo Alkatea eta Mahaiburua dena, Miren Azkarate, Allande Boutin, Anjel Lertxundi, Koldo Ordozgoiti, Iñaki Zabaleta, eta Idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Patxi Baztarrika-k osatu duten Epaimahaiak alegia, ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea akordatu du:

1.- Orain zortzi urte, 1988an, bi helburu nagusiokin sortu zuen Andoaingo Udalak *Rikardo Arregi Kazetaritza Saria*: alde batetik, kazetaritza ere euskaraz egiteko pizgarri bat kaleratzea, eta, bestetik, garai hartan dagoeneko egiten zen euskarazko kazetaritzari bultzada ematea. Hori guztia prentsa idaziaren esparruan.

Harrezkero, zortzi urte hauetan alegia, bistan da euskaraz egindako kazetaritzak aurrerapauso nabarmenak eman dituela. Esaterako, izugarri gehitu da euskaraz egindako informazioa eta, orohar, euskaraz landutako komunikazioa; euskarazko egunkaria ere badaukagu; euskarazko irrati eta telebista saioek egundoko hedadura hartu dute; piskanaka bada ere euskarak lehen baino leku gehiago du erdaretan egindako komunikabideetan; herri aldizkarien errealitate oparoa ere gertatu da. Egiteko eskubete lan dagoen arren, hori guztia ere errealitatea da.

2.- Euskarazko kazetaritzaren errealitatea aldatu izanaren ondorioz, egoera berrira egokitu beharra atzeman zuen Andoaingo Udalak, eta aurtengo ediziorako oinarriak aldatu egin zituen neurri batean. Prentsa idatzira mugatu beharrean, prentsa idatziko erreportaiak eta baloraziozko lanekin batera irrati eta telebistakoak ere kontutan hartzea izan da aldaketa nagusia.

Aldaketak izan dira, halaber, sari-ataletan. Horrela, bada, kazetari hasi berrien edo hastear daudenen lana bultzatzeko **“irradi eta telebistarako gidoigintza”** saria sortu da. Eta beste bi atal berri sortu dira: **“saiakera laburra”** eta **“komunikabideen berrikuntza”**.

Aurtengo edizio honi eta etorkizunekoiei dagokienez honako bi helburuok jarri dizkio Udalak Sariari: batetik, euskaraz egindako kazetaritza-lanetan, kopuruz eskas ez gabiltzanez, **kalitatea** bultzatzea, eredugarri irizten diren lanak sarituz, eredugarri hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako. Bestetik, **berrikuntza** bultzatzea, kalitatea eta berrikuntza txanpon beraren alde biak baitira.

3.- Aipatutako helburu nagusi horiek eta oinarrietan jasotako irizpide orokorrak kontutan hartuta burutu du bere lana eta erabaki ditu sariak Epaimahaiak, beti ere kontutan soil-soilik kazetaritza balioa hartu duelarik.

Nolanahi ere, sariei buruzko erabakia eman aurretik bada epaimahaikideek egin nahi duten **ohar bat**: oso zaila gertatu da prentsa idatziko erreportaia eta artikuluak irradi eta/edo telebistako saioekin alderatzea eta neurtzea. Izaera eta formato ezberdinak dituzten hedabideetako lanak izatean, denborari eta bitartekoei dagokienez oso baldintza diferenteetan egindako lanak izatean, ezinezkoa ez bada ere oso zaila behintzat bada hori guztia zaku berean sartzea. Horregatik, Epaimahaiaren iritzian, egokiagoa litzateke etorkizunean irradi/telebistako erreportaiatzat sari-atal berezitua sortzea.

4.- Sariak erabakitzeko prozedurari dagokionez, esan behar da, **“saiakera laburra”**, **“komunikabideen berrikuntza”**, **“erreportaia”** eta **“baloraziozko kazetaritza”** ataletan ez dela ezinbestez bete beharreko baldintza norberak bere lanak aurkeztea. Epaimahaiak bere begitik egin du argitaratutakoaren jarraipen eta hautaketa lana, aurkeztutako lanak izan ala ez. Saritutakoen artean bada aurkeztu gabe aukeratua izan denik. Nolanahi ere, lanak aurkez zitzaten dei berezia egin zitzairen kazetariei, eta erantzuna bikaina izan da, Epaimahaiak espresuki eskertu nahi duena. **“Erreportaia”** atalean 64 lan, **“saiakera laburrean”** 12 artikulua eta hitzaldi, **“komunikabideen berrikuntza”** atalean 4 txosten eta **“baloraziozko kazetaritza”** 77 lan aurkeztu dituzte autoreek berek. Guztira, beraz, 150etik gora. Kazetari hasi berri edo hastear daudenezat bereziki sortutako **“irradi eta telebistarako gidoigintza”** atala da lanak -kasu honetan gidoiak- aurkeztea ezinbestekoa zuena. Inork ez du, ordea, lanik aurkeztu eta, ondorioz, saria, 225.000,- pezetakoa, **hutsik** geratu da.

5.- Honako hau da sariei dagokienez Epaimahaiak ahobatez bere egiten duen erabakia:

* **5.1.- “Baloraziozko kazetaritza”** ataleko saria, 425.000,- pezetaz hornitutakoa. Lehen aipatutako irizpide orokorrez gain, Epaimahaiak oso kontutan hartu du oinarrietan atal honi buruz esaten dena. Ikus dezagun, hitzez hitz emanda, oinarriek atal honetaz diotena: *“prentsa idatzian argitaratutako zutabeen eta irrastian edo telebistan plazaratutako iritzizko emanaldi laburren artean Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio (...) idazkera edo estiloa, mezu edo iritzi propioaren funtsa hitz gutxitan baina aldiberean beharbeste sakontasunez azaldu izana eta idatziaren bizitasun edo indarra hala nola gaurkotasuna hartuko ditu kontuan”* Epaimahaiak.

Zutabea da saritutako lana, ezbairik gabe aparteko indarra eta gaurkotasuna dituen. Estiloari dagokionez, artikulu biribil baten aurrean gaudela uste du Epaimahaiak.

+ Saritutako artikulua: **“Elurraren bertuteak”**, 1996ko otsailaren 22an Euskaldunon Egunkarian, “seiko urrea” sekzioan, argitaratutakoa.

+ Autorea: **Xabier Mendiguren Elizegi** jauna.

“Baloraziozko kazetaritza” atalean Epaimahaiak oinarrietako hamargarrenak ematen dion aukeraz baliatzea erabaki du, hots, **“aipamen berezi”** bat egiteko aukeraz.

“Aipamen berezia” egiten zaion artikuluari dagokionez, korapilotsua den gaia hitz gutxitan eta sakon ezezik oso estilo freskoan edo xamurrean aztertu izana azpimarratzen du Epaimahaiak.

+ *“Aipamen berezia”* jasotzen duen artikulua: **“Rabin, profeta berria”**, Euskaldunon Egunkarian 1995eko azaroaren 22an argitaratua.

+ Autorea: **Andoni Lekuona** jauna.

* **5.2.- “Erreportaia”** ataleko saria, 425.000,- pezetaz hornitutakoa. Atal honek ere bere baitan ditu prentsa idatzian nahiz irratian edo telebistan ezagutzera emandako erreportaiak, eta honako hau da oinarriek atalari buruz diotena: *“sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontuan”*.

Irizpide horiek erabat betetzen ditu saritutako erreportaiak. Baina beste honako hau ere gehitu nahi du Epaimahaiak: erabakitzailea izan da egileek bai gaia aukeratzekoan bai eta erreportaiak bera lantzerakoan ere azalduko kazetari trebetasun aparta eta erreportaiak argitaratzekoan idazlanarekin batera irakurlearen esku jarritako infografiak eta konposaketak duten balioa, erreportaiak biribiltzen baitute.

+ Saritutako erreportaiak: **“Urtebete elkarrizketen zain”** (IRAREN su-etenaren urteurrena), Euskaldunon Egunkarian 1995eko abuztuaren 27an argitaratua.

+ Autoreak: **Imanol Murua** eta **Humberto Unzueta** jaunak.

* **5.3.- “Saiakera laburra”** ataleko saria, 425.000,- pezetaz hornitutakoa. *“Baloraziozko kazetaritza”* izenez ezagutzen dugun atalarekin batera, saiakera laburrarena da Sari honi izena eman dion Rikardo Arregi zenak jorratutako jeneroa. Oinarrietan ezarritakoaren arabera, fenomeno eta gertakizun puntaletatik harantzago doazen artikulua eta hitzaldi idatziak hartu behar dira kontutan, eta *“egileak aztergaiari buruz egindako hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorrotasuna, hala nola idazkeraren egokitasuna, aberastasuna eta kalitatea izango ditu kontuan Epaimahaiak saria erabakitzerakoan”*.

Saritutako hitzaldi/artikuluari dagokionez esan behar da, begibistakoak direla gaiaren beraren sakontasuna, nola hausnarketaren aberastasuna eta zorrotasuna ere. Sendoa eta oinarritua da, ez bairik gabe, saritutako lana.

+ Saritutako hitzaldi/artikulua: **“Europa bakarra, Europa anitzak”**, Uztaro aldizkarian -1995eko abenduko zenbakian- argitaratutakoa.

+ Autorea: **Joseba Arregi** jauna.

* **5.4.- “Komunikabideen berrikuntza”** ataleko saria, hedabideetako lana euskaraz burutzeko berrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin duenari

eman beharrekoa. Sari-atal berri honi buruz oinarriek diotenaren arabera, teknologia eremukoak eta beste zernahi arlotakoak izango dira aintzat hartu beharreko berrikuntzak. Teknologi alorrekoak dira aurten saritutako berrikuntzak. Eta sari bakar bat ez baizik eta bi ematea, *ex aequo* alegia, erabaki du Epaimahaiak. Biok dira, bada, saria jasoko duten komunikabideak:

Euskadi Irratia eta Lapurdi Irratia.

Bi irratiek berrantolaketa teknologiko oso bana burutu dituzte. Hedapen eta dimentsio ezberdinetako komunikabideak ditugu *Euskadi Irratia* eta *Lapurdi Irratia*, azken hau kokalekua Donostian, Miramonen, duen Euskadi Irratia baino erruz ttikiagoa.

Bakoitzak bere neurriaren arabera, baina biek irratia informatizazioa bultzatu dute. Informatizazioaren eta digitalizazioaren bideetatik aurrerakuntza nabarmen eta erabakitzailea burutu du Euskadi Irratiak, eta aplikazio informatiko eraginkorrak dituzten tresneriaz jabetu da. Lapurdi Irratiak ere, Euskadi Irratiak zati batean egindakoaren antzera, emisioen automatizaziorako aukera damaioten erramintak eskuratu ditu eta, horrela, bere baliabideak apalak izan arren, emisio-orduak gehitu ditu.

Bi irratiek teknologia berrienak hizkuntza zaharrenaren zerbitzura jarri dituzte. Egokitzapen teknologiko aurrerakoi hauen aldeko apostua saritu nahi izan du Epaimahaiak, uste eta nahi baitu euskarazko komunikabideen etorkizun oparoago baten mesedetarako izango direla *Euskadi Irratiak* eta *Lapurdi Irratiak* egindako ahaleginok.

6.- “Ohorezko aipamena”. Andoaingo Udalarekin bat eginda, aurtengo Sari honen barruan “*ohorezko aipamena*” egitea erabaki du Epaimahaiak: “*Ohorezko aipamena*” gaurko omenalditxo hau baino askoz gehiago merezi duten orain dela 60 urte piztu zen gerra zibilaren garaiko eta aurreko euskal kazetariei.

Gizakiak egiten duen oro da unean uneko ekintzaren fruitu. Gizakiak egiten duen guztia ez da, ordea, hutsetik sortua izaten. Gauza gehienek dute iraganean oinarriren bat edo beste. Horregatixe giza-ekintza guztiak kokatzen dira denboraren gurpilean eboluzionatzen duen katea batean. Eta euskal kazetaritzarekin ere horrelako zerbait gertatzen da.

Gaurkoa, hemen gaur sarituak izan diren lanek errepresentatzen duten euskal kazetaritza, izango da biharkoaren zutoin eta abiapuntu. Baina gaurkoa bera ere ez da hutsetik sortua. Gaurkoak ere baditu abiapuntuak. Iraganean ditu bere erroak. Gaurko euskal kazetaritzaren enborra azalgaineratu bada, iraganean norbaitzuek sustrai sendoak jarri zituztelako izan da neurri batean.

Euskal kazetaritzaren iragana eta etorkizuna uztartu nahi izan dituzte Epaimahaiak eta Andoaingo Udalak. Horregatik, eta bakoitzari berea denez gizalegea, gaurko “*ohorezko aipamen*” hauek izan bitez gerra zibileko garai zailetan euskal kazetaritzan aitzindari eta ekintzaile gisa egin zuten lan bikainaren aitortpena eta eskerrona.

Ahalegin ugariaren ondoren, hamar kazetarirekin lortu da harremanetan jartzea. Bada kontaktatzea ezinezkoa izan denik ere: esaterako, Soroluzen jaio eta Argentinan bizi den **Andoni Astigarraga** jauna. Gaur hemen “*ohorezko aipamena*” jasoko duten hamar kazetari maitagarri bidez, jaso bitzate guztion aitortpena eta omena garai hartako euskal kazetari guztiek.

Honako hauek dira *VIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sari* honetan “*ohorezko aipamena*” jasotzen duten jaun-andreak, beste zenbaiten artean *Argia*, *Ekin*, *Euzko eta Euzkadi* aldizkarietan eta *El Día* eta *Eguna* egunkarietan idatzi zutenak: **Sebastian Alustiza, Iñaki Eizmendi, Romana Elustondo, Jose Mari Etxaburu, Martin Gallastegi, Felipe Lizaso, Alejandro Mendizabal, Maria Juliana Orbegozo, Paulin Solozabal eta Agustin Zubikarai.**

Honaino, bada, *VIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion *azken erabakia*, Epaimahaikide guztiok ontzat ematen eta sinatzen duguna gaur, Andoainen, mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko ekainaren hogeita bederatzian.

Jose Antonio Pérez

Miren Azkarate

Allande Boutin

Anjel Lertxundi

Koldo Ordozgoiti

Iñaki Zabaleta

Patxi Baztarrika